



Urretxandikoa (-a) etxebizitza

Aldaeak:

Ahozkoa: Urrétxandikue / Urritxandikue



43° 10' 9"

2° 33' 57"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

"... la casería titulada 'Urrecha' situada en el barrio de Ocano, de la anteiglesia de Berriz... se compone de piso bajo y alto, y es de una vivienda, comprende con su horno y zaguan ciento veinte y un estados, equivalentes a cuatrocientos cincuenta y siete metros..."

DJE 6/136 or. (1892)

"... la mitad de la casería rústica titulada Urrecha-andikoa... situada en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende cincuenta y dos y medio estados cuadrados superficiales de planta solar, y la que se compone de sus correspondientes pisos, cuadras y habitaciones..."

DJE 1/215 or. (1866)

Okango kofradiaren baitan aurkitzen dugun baserri-etxe handia dugu honako hau, XVIII. mendetik dokumentatzen dena, *Urrecha* edo *Urrecha de Suso* aipamenak aurkitzen ditugu 1704. urteko Bizkaiko su-erroldean. Maiz gertatzen den bezala, hemen ere *Urretxa* izeneko baserri bi aurkitzen ditugu jatorrian, eta hortik datoz bereizteko erabiltzen diren forma desberdinak, besteak beste: *Urrecha de Yuso* (1796, Bizkaiko su-errolak), *Urrecha andikoa* eta

Urrecha (1825, PE), *Urrechabeascoa* (1845, BAH, A32/37. or.) edo *Urrechaganeua* (1870, DJE, 2/ 235. or.).

1859ko izendegian *Urréchas* (BUA) era agertzen da, leku honetan dauden baserri biei erreferentzia egiteko. XX. mendean sartuta, eta batez ere azken urteetan, *Urricha Andicua* (1905, BUA, 40. or.), *Urrecha andikoa* (1910, BUA, RU) eta *Urrechandikoa* (1967, BUA, CE) formak nagusitu dira. Bilbo-

toponimia

Toponimian oso arruntak dira zuhaitz izenak kasu honetan bezala. Gaur egun urritxa ez da oso preziatua eta gehienbat Turkiatik ekartzen da fruitua, baina garaia batean zuhaitz xume honek ematen zuen fruitua oso preziatua zen zapore-gatik eta gordetzeko erraztasunarengatik. Gainera bere makilak erabiltzen ziren saskigintzan, etxe barruko ormak eraikitzeko, aulkietan eta arrantzarako tresnetan. Izenaren bigarren osagaiak, -andikoa, *Urretxa* etxeen artean, "beste aldean" dagoen etxea adierazi nahi du.



Berriz Iruditan / T. Angoitia

Baiona autopista egiterakoan, *Urretxa* edo *Urretxazarra* baserria desagertu zen, eta hortik datorkio jatorrizko baserriaren ondoan egindako eraikin batek hartu duen *Urretxazarra* izena (**Ikus Urretxazarra**). Berriztarren artean, *Urrétxandikue* edo *Urritzandikue* moduan ezaguna da baserri hau, eta zonalde berean egin diren beste eraikin berrientzako erreferente izan da, esaterako: *Urretxagana* (**Ikus Urretxagana**) eta *Urretxaburu* (**Ikus Urretxaburu**).

Baserri etxe handiak, XIX. mendeko eta XX. mende hasierako taxuketa gordetzen du. Harrerem estua dauka *Gangulia* (**Ikus Gangulia**) eta *Zelaietarekin* (**Ikus Zelaieta**), nahiz eta

1974an berreraiki egin zuten, inskripzio batek argitu moduan. Hiru solairu eta ganbara ditu. Harlangaitzaz jaso zuten eta harlandua erabili zuten baoak burutzeko, atarteko sarrerako arku eder biak eta etxe kantaletarako. Baoetan, nabarmenak dira arkuen gaineko balkoiak, lehenengo pisukoa, txikia; eta bigarrenekoa, osterak, alderik aldekoa. Ia arau zena sasoi hartan, bi isuritako teilatua du. Berreraikitze eta dataren inguruko informazioa sarrerako arkuen arteko inskripzioak diosku: “*REEDIFICADO / BE AYARZAGUENA / CA OREGUI / CONSORTES / MO AZPITARTE / MA TA ARGOITIA / CONSORTES / AÑO-1974 / URRECHA*”.